

ZIRRIBORROA

2025EKO URTARRILAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hogeita hamarrean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak dio, nahiz eta deialdian bost akta onartzea proposatzen den, lau aurkeztu ahal izan direla eta 2024ko abenduaren 19koa hurrengo Osoko Bilkuran onartzeko geldituko dela.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio 2024ko azaroaren 28ko aktan, bilkura hartan EH Bilduk egindako galdera bat eta hari Alkateak erantzundakoa gehitzea eskatzen duela "Lazkaoko udala akusazio partikular gisa agertzea Lazkaon, kirol-eremuan, ustez gertatutako sexu-abusuen prozedura penalean" puntuan. Hori gehituta ontzat ematen dutela akta hori ere.

Hau honela, 2024ko irailaren 26koa, urriaren 17koa, urriaren 31koa idatzita dauden moduan onartu dira, eta 2024ko azaroaren 28ko akta berriz gehikuntza hori eginda onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 5 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako kreditu transferentzia bidezko 5. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	41.000,00 €
IV	Transferentzia arruntak	7,24 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		41.007,24 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	41.007,24 €
GUZTIRA		41.007,24 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 31. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztagiria egin dute.

Hogeita hamaikagarren obra egiaztagiria BERROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA HOEGITA HAMAZAZPI ZENTIMOKoa (55.522,37 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman dio ziurtagiri honi.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), Alkatearen kalitatezko botoarekin, ziurtagiri hau onartu du.

VI.- ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIAREN FUNTZIO FITXA ETA BALORAZIOAREN ONARPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) pleno aretora bueltatu da.

Udaleko Idazkaritza sailean, zeregin pilaketa dela eta, Administrazio Orokorreko Teknikari baten beharra atzeman da. Hau honela, postu horren funtzio fitxa eta balorazioa burutu dira.

Ogasun, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien Batzordean gaia landu ostean, batzorde honek Osoko Bilkurari honen onarpena proposatu dio.

Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Administrazio Orokorreko Teknikariaren funtzio fitxa eta balorazioa onartu ditu.

VII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio 2024ko urriaren 31ko aktan, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoaren zerbitzuaren esleipenari dagokion puntuan, jasota dagoela eurak bat datozela honekin. Gustatuko litzaikeela Estudio K enpresarekin lehen kontaktua egiten denetik beraiek jakitun izatea, berarekin harremanetan izatea, gai hau oso ineteresekoa dutelako bereziki. Eskertuko luketela kontuan hartzea.

Alkateak kontuan hartuko zutela erantzun zuela.

Beraiek dakitenez bileraren bat egin da eta ez direla deituak izan, ez informatuak ez ezer. Hori al den kontuan hartzeko modua.

Alkateak dio zalantzarik ez izateko kontuan hartuak izango direla. Bilera hori teknikarien arteko bilera izan zela, bera bertaratu zela, baina dokumentazioa emateko bilera bat izan zela soilik.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta berrogeita hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.